

GOBERNU BATZARRA

2014. 06. 13

Alkatea:

Ibai Iriarte San Vicente

Zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria

**Iñaki Xabier Irazabalbeitia
Fernandez.**

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzaitzako Teknikaria:

Paulino Alonso Eraso.

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamalauko ekainaren hamahiruan, goizeko 10:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.- Korreo 9ko patio pribatuaren lagapena Tolosako Udalaren alde.
- 3.- Mankomunitatearen ekarpena.
- 4.- Iurramendi egoitza: maiatzeko faktura.
- 5.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.
- 6.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. R.V.G.ren eskaera.
- 7.- Tolosako "Berazubi Ikastetxea" partzelako Babes Ofizialeko 16 etxebizitza jabetza osoko erregimenean esleitzeko oinarriak onartzea.
- 8.- Tolosako "Berazubi Ikastetxea" partzelako araubide bereziko 19 etxebizitza tasatu esleitzeko oinarriak onartzea.
- 9.- 17/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2014ko ekainaren 6an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Korreo 9ko patio pribatuaren lagapena Tolosako Udalaren alde.

Gaia erabaki gabe geratu da espedientea osatu arte.

3.- Mankomunitatearen ekarpena.

Tolosaldeko Mankomunitatean 3 sistema desberdinen bidez egiten da hondakinen bilketa. Atez-atekoa, landa eremukoa eta edukiontzien bitartez egiten dena. Sistema bakoitzak ingurumenarekiko eragin desberdinak ditu eta sistema bakoitzaren kostuak eta diru sarrerak (bilketa, garraioa eta tratamendua) desberdinak dira. Hori dela-eta, formula bat garatu da Mankomunitatearen baitan herri bakoitzak egin beharreko ekarpenak modu orekatu eta justuan banatzeko.

Horrela, bi zatitan banatzen da udal bakoitzak egin beharreko ekarpena:

* **Gastu finkoa:** Hondakinen bilketa sistema bakoitzari dagokiona eta mankomunitatearen gastu estrukturaleri dagokiona.

* **Gastu aldakorra:** Hondakinen tratamenduari dagokiona, material birziklagarrien diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan izanik, Tolosaldeko Mankomunitateak 2014ko urtarrila, otsaila eta martxoari dagozkien fakturak aurkeztu ditu.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea ondoren aipatzen diren fakturak:

- . Urtarrila 161.265,94€ (finkoa 96.140,71€ eta aldakorra 65.125,23)
- . Otsaila 151.951,74 € (finkoa 96.140,71€ eta aldakorra 55.811,03)
- . Martxo 165.225,21€ (finkoa 96.140,71€ eta aldakorra 69.084,50)

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Ingurumena departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.

4.- Iurramendi egoitza: maiatzeko faktura.

Iurreamendi egoitzak maiatzeko kuoten likidazioa aurkeztu du.

Hori horrela, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Iurreamendi egoitzari ordaintzea maiatzeko kuoten likidazioari dagokion zenbatekoa, 30.458,87 €-koa, honela banatuta:

Autonomoen kostua: 1.166,84 €
Elbarrien defizita: 29.292,03 €

BIGARRENA.- Onartzea iurreamendi egoitzak 2014ko urtarriletik apirilera bitartean aurkeztutako likidazioen ajusteari, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014ko behin betiko tarifak aplikatuta eginak, honela banatuta:

Urtarrileko likidazioa: -1.338,83€
Otsaileko likidazioa: -1.186,92€
Martxoko likidazioa: -1.308,57€
Apirileko likidazioa: -1.231,51€

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamentuari.

5.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Errekargua. Besteak.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratuta zen.

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 8an egindako osoko bilkuran, eta 2014ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babes-tuta, %50eko errekarua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileren lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2013, y a efectos del ejercicio de 2014, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble

okupatuta dagoela.

Eranskinean azaltzen diren zergadunak ez daude bertan azaltzen diren etxebiziltzetan erroldaduta.

Beraz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako zergaren kuotaren %50eko erreargua aplikatzea **S.G.A.**ri, zeren 2014ko urtarrilaren 1ean 5054479 zenbaki finkoa duen etxebizitza ez zelako inoren ohiko etxebizitza.

BIGARRENA.- **F.E.S.**ri O.H.Z. zergaren kuotan %50eko erreargua ez aplikatzea kontutan izanik eskaeran azaldutako arrazoiak.

HIRUGARREN.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

está ocupado por una o más personas.

Los contribuyentes que aparecen en el anexo no están empadronados en dichas viviendas.

Por lo tanto, La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- Aplicar a **S.G.A.** el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto ya que a fecha 1 de enero de 2014 la vivienda con número fijo 5054479 no era vivienda habitual.

SEGUNDO.- No aplicar a **F.E.S.** el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto por las circunstancias especiales que aduce en dicha solicitud.

TERCERO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

6.- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga. Erreargua. R.V.G.ren eskaera.

Uztailaren 4ko 4/2012 Foru Arauak aldaketa batzuk sartu zituen tokiko zerga-ordainketan eta 2012ko uztailaren 10eko 131 zk.ko GAOn argitaratuta zen.

Udalbatzak, 2013ko azaroaren 8an egindako osoko bilkuran, eta 2014ko ekitaldirako ondorioetarako, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Ordenantza Fiskalari dagokionez, eta goian aipatutako Foru Arauko 1. artikuluan xedatutakoan babes-tuta, %50eko erreargua mantentzea erabaki zen aipatutako Zergaren kuota likidoaren gainean, baldin eta bizitoki erabilerarako ondasunak subjektu pasiboaren edo errentagatik edo erabileren lagapenagatik hirugarrenen ohizko bizitoki ez badira.

La Norma Foral 4/2012, de 4 de julio, que introdujo varias modificaciones en el pago de impuestos locales fue publicada en el BOG nº 131, de 10 de julio de 2012.

La Corporación Municipal, en sesión celebrada el 8 de noviembre de 2013, y a efectos del ejercicio de 2014, en cuanto a la Ordenanza Fiscal del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, y amparándose en lo dispuesto en el artículo 1º de la mencionada Norma Foral acordó mantener el recargo del 50% sobre la cuota líquida de dicho impuesto, siempre y cuando los bienes de uso residencial no sean residencia habitual del sujeto pasivo ni de terceros por alquiler o por cesión de uso.

Bizileku erabilerako ondasun higiezin bat ohiko bizilekutzat joko da, biztanleen erroldan jasota badago ondasun higiezina pertsona batek edo gehiagok okupatuta dagoela.

Beraz, kontuan izanik, **R.V.G.**ek alokairu kontratua ekarri duela Amarotz 13-2.D etxebizitza hori errentan dagoela ziurtatzeko,

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **R.V.G.** zergadunari errenergua **EZ** aplikatzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari.

Un bien inmueble de utilización residencial se considerará vivienda habitual, siempre que conste en el padrón municipal que el bien inmueble está ocupado por una o más personas.

Teniendo en cuenta que **R.V.G.** ha presentado el contrato de alquiler de la vivienda Amarotz 13-2D para certificar que la vivienda figura en alquiler,.

La Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ACUERDA

PRIMERO.- **NO** aplicar el recargo a **R.V.G.**

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo al departamento de Intervención.

7.- Tolosako “Berazubi Ikastetxea” partzelako Babes Ofizialeko 16 etxebizitza jabetza osoko erregimenean esleitzeko oinarriak onartzea.

Tolosako Udalak, “Berazubi Ikastetxea” partzelan, sustapen pribatuko babes ofizialeko 16 etxebizitza esleituko ditu, jabetza osoko erregimenean.

Babes ofizialeko etxebizitza hauek esleitzeko oinarrien ezaugarri nagusiak hauek dira:

Guztira, lau solairutan banatutako **16 etxebizitza** izango dira. Hauetatik 12, hiru logelatakoak izango dira eta gainontzeko 4 etxebizitzak bi logelatakoak.

Bi logelatako etxebizitzaren artean, hiruk etxebizitzek, egokitutakoa barne, ondorengo banaketa dute: sukalde-jangela-egongela, bi logela eta komun bat. Laugarren etxebizitzak sukaldea, jangela-egongela, bi logela eta komun bat ditu.

Hiru logelatako etxebizitza guztien banaketa ondorengoa da: sukaldea, jangela-egongela, hiru logela, eta bi komun.

Etxebizitza guztiek garajea eta trastelekua dute erantsirik.

Etxebizitza hauen **salmenta prezioari** dagokionez, metro koadro erabilgarriaren prezioa ondorengoa da: etxebizitzaren azalerari dagokion Tolosako BOE modulua, oinarri hauek onartzeko momentuan indarrean dagoena (1.629,31 €/m²).

Etxebizitza hauen **onuradun** izateko eskatzaileek ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

Bizilekuaren edo herriarekiko lan lotura. Bizikidetza unitateko kide batek gutxienez, ondorengo baldintzetatik bat betetzea eskatuko da:

- Tolosa ohiko bizilekua izanik bertan erroldatua egotea urtebetetik gorako epean oinarriak onartu aurreko aldian.
- 15 urtez Tolosan erroldatuta bizi izana.
- Tolosan lan egitea urtebetetik gorako epean oinarriak onartu aurreko aldian.

Tolosaldeko udalerriren batean bizi direla ziurtatzen duten eskatzaileen eskabideak onartuak izango dira, baina aukera izango dute soilik baldin eta babes ofizialeko etxebizitza guztiak ez badira adjudikatzen Tolosako eskatzaileen artean. Ondorengo hau egiaztatu beharko dute: Tolosaldean erroldatuta edo lanean azken bost urteetatik gutxienez hirutan, edo 15 urtez Tolosaldean erroldatuta bizi izana.

Gehiengo eta gutxiengo diru sarrerak: Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren erosketarako, urtean, batez beste 9.000 eta 39.000 euro bitarteko diru sarrerak ziurtatu beharko dira.

Etxebizitzarik eza: Euskal Autonomi Erkidegoko arautegiak ezartzen duenaren arabera, Bizikidetza-unitateko kideek ezingo dute jabetzako, jabetza soileko, azalera eskubideko edo usufruktuko etxebizitzarik izan, izena emateko eskabidea formalizatzen den egunean. Aurretik etxebizitza izan bada, etxebizitza hori eskualdatu denetik gutxienez bi urte pasa izana, esleipen prozeduretan parte hartzeko baldintza izango da.

Aurreko guztia ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENENA.- Berazubi Ikastetxea partzelako sustapen pribatuko babes ofizialeko 16 etxebizitza esleitzeko oinarriak onartzea.

BIGARRENA.- Espedienteari hasiera ematea, deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta egunkarietan argitaratuz. Esleipenean parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa 45 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

8.- Tolosako “Berazubi Ikastetxea” partzelako araubide bereziko 19 etxebizitza tasatu eskeitzeko oinarriak onartzea.

Tolosako Udalak, “Berazubi Ikastetxea” partzelan, sustapen pribatuko 19 etxebizitza tasatu esleituko ditu.

Etxebizitza tasatu hauek esleitzeko oinarrien ezaugarri nagusiak hauek dira:

Guztira, lau solairutan banatutako **19 etxebizitza** izango dira. Hauetatik 8, bi logelatakoak izango dira eta gainontzeko 11 etxebizitzak hiru logelatakoak.

Bi logelatako etxebizitzetatik 4, honela banatzen dira: sukaldea, jangela-egongela, bi logela eta bi komun. Gainontzeko 4 etxebizitzak sukalde-jangela-egongela, bi logela eta bi komun izango dituzte.

Hiru logelatako etxebizitzetatik 3, sukalde-jangela-egongela bateratua, hiru logela eta bi komun izango dituzte, eta gainontzeko 8 etxebizitzek, sukaldea batetik, jangela -egongela, hiru logela eta bi komun izango dituzte.

Etxebizitza guztiek garajea eta trastelekua dute erantsirik.

Etxebizitza hauen salmenta prezioari dagokionez, metro koadro erabilgarriaren prezioa ondorengoa da: etxebizitzaren azalerari dagokion Tolosako BOE modulua, oinarri hauek onartzeko momentuan indarrean dagoena (1.629,31 €/m²), bider, promotoreak ezarritako indizea. etxebizitza tasatuak arautzen dituen Ordenantzak araubide bereziko etxebizitza tasatuentzat ezartzen duen gehieneko 1,7ko indizea baino baxuagoa izango delarik.

Promotoreak ezarritako indizeak 1,15 eta 1,45 bitartean kokatzen dira araubide orokorreko BOE-ren gehieneko prezioari dagokionez eta etxebizitzaren kokapena eta azaleraren arabera aldatzen dira.

Etxebizitza tasatuen esleipenean zozketan parte hartu ahal izango dute, bakarrik, oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetik 45 egun naturaleko epean Tolosako Udaleko etxebizitza tasatuen eskatzaileen erregistroan izena ematen dutenek. Beraz, etxebizitza tasatu hauen onuradun izateko Etxebizitza tasatuen Ordenantzan jasotako baldintzak bete beharko dituzte interesdunek.

Diru-sarrerei dagokionez etxebizitzak esleitzeko prozesuan parte hartzeko, bizikidetzaren unitateek 9.000,00 euro eta 52.500 euro arteko diru-sarrerak eduki behar dituzte.

Aurreko guztia ikusita, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Berazubi Ikastetxea partzelako araubide bereziko 19 etxebizitza tasatu esleitzeko oinarriak onartzea.

BIGARRENA.- Espedienteari hasiera ematea, deialdia eta oinarriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko iragarki taulan, web orrian eta egunkarietan argitaratuz. Esleipenean parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa 45 egun naturaleko epean aurkeztu beharko dira, oinarriak argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

9.- **17/2014 zenbakia duen faktura-zerrenda.**

Kontuhartzaitzak **17/2014** faktura zerrenda aurkeztu du; 51,361,09€-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **17/2014** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:30etan.

ALKATEA

IDAZKARIA